

UROLA KOSTAKO HITZAGUKA

UROLAKOSTA.HITZA.EUS

ASTEARTEA, 2023KO

IRAILAREN 19A

XX. URTEA, 5.434. ZENBAKIA

**Bere burua
aurkeztuta, bideari
ekin dio Zirika
euskara elkarteak**

Aurkezpen ekitaldia egin du Zarauzko euskara elkarteak. Taldearen nondik norakoak azaltzeaz gain, hainbat datu eman eta herritarrei elkartera batzeko deia egin diete // 6



Urola Kosta

Telmo Deunek ez du lortu Euskotren ligara igotzea; beste traineruek ere bukatu dute denboraldia // 4

**Oroimen
Historikoaren
Astea egingo
dute Azpeitian**

Gaurko egunez tropa frankistak sartu ziren herrian, eta horren harira, hitzaldiak eta bisita gidatua antolatu dituzte udalak eta Aranzadi elkarteak // 7



Saregile Orioko emakumeen etxearen inaugurazio ekitaldia, ostiralean. ANDREA ZIPITRIA

Saretuta, azkenean lortu dute ametsa

Saregile Orioko emakumeen etxea zabaldu dute • «Herriko emakumeok indarrak batzeko espazioa izango dugu azkenean», diote • Eskualdeko emakumeen etxeek ahalduz eskolen egitarauak aurkeztu dituzte // 2-3



Bilgunea irudikatuko duen kartela erakusteko momentua, eta Saregile Orioko emakumeen etxea barrutik. ANDREA ZIPITRIA

Ireki ditu ateak hainbeste esperotako Saregile Orioko emakumeen etxeak, ostiralean izan zen inaugurazio ekitaldi jendetsuaren ostean. Iturriaga jauregia izango da aurrerantzean bilgune berria.

Ametsetako jauregia

—ANDREA ZIPITRIA

Orioko mugimendu feministak beti amestu du Orion emakumeen etxea izatearekin, behar gisa identifikatuta. Ostiralean, amets hori errealitate bihurtu zen. Hain justu ere, ostiral arratsaldean ireki zituen ateak Saregile Orioko emakumeen etxeak. Pilliku plazako politikak lantzen. Ordutik, urrats garrantzitsuak egiten ari dira mugimendu feministaren aldarrietatik abiatuta, gizarte parekideago baten eraikuntzan. Ibilbide horren mugarri garrantzitsua izan da emakumeen etxearena.

Emozioa eta askoren malkoak izan ziren protagonista ostiralean. Izan ere, askok nabarmendu zuten lau horma baino gehiago direla inauguratutako etxea. Herriar andana bertaratu zen inaugurazio ekitaldira, emakumeen etxea ezagutzeko irrikitan. Bertan izan ziren Pertzetik elkarteak kideak, Emakumeen Mahaiko kideak eta udaleko ordezkariak, besteak beste.

«Herriko emakume guztiok indarrak batzeko espazioa izango dugu azkenean, jendarte parekide baterako bidean aurrera egiteko topagunea», esan zuen Aizpea Esnaola Saregile etxeko arduradunetako batek. Saretzeari lotuta, harreman berriak sortzeko eta familia osatzeko espazio bat eskaini nahi dute. «Emakumeon ahalduntzea eta saretzea bultzatzea da helburua, partaidetza soziala eta politikoa indartzeko, eta emakumeon aniztasuna kon-tuan hartuta», erantsi zuen.

Hitzen ondoren, kantuaeren eta dantzaren txanda izan zen.



Herritar asko bertaratu ziren irekiera ekitaldira. ANDREA ZIPITRIA

Horren ostean, Miriam Garcia eta Esnaola bertako arduradunek etxea apainduko duen kartela aurkeztu zuten, eta orduan iritsi zen jauregia barrutik ezagutzeko unea. Lau solairu ditu espazio berriak, eta horietan banatuta, dinamizatzaileen bulegoa, sukaldea, bilera gela, aholkularitza juridikorako gela, gune komun bat eta areto bat daude.

Udazkenerako hainbat ikastaro eta ekintza antolatuta dituzte, eta zenbait zerbitzu ere martxan jarri dituzte dagoeneko.

Saregile etxea

BILGUNEA ETA ORDUTEGIA

Bilgunea: Pilliku plazako Iturriaga jauregian izango du egoitza Saregile emakumeen etxeak.

Ordutegia: Astelehenetik ostegunera, 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara artean izango da irekita bilgunea, eta ostiralean, 09:30etik 13:00etara bitartean zabalduko dute.

ZERBITZUAK

Aholkularitza juridikoa: Marcarena Mugikak eskainiko du aholkularitza juridikoko zerbitzua.

Bidelaguntza psikologikoa: Leire B. Murgialdaik eskainiko du zerbitzua Orioko emakumeen etxean.

Indarkeria matxista egoeran dauden emakumeentzat aholkularitza zerbitzua: Orioko emakumeen Ahalduntze Eskolakoek eskainiko dute zerbitzua.

Emakumeen etxeek prest dute datozen hilabeteetako eskaintza

Ahalduntze eta jabetze eskoletan ikasturte berriko lehen hiruhileko egitarauak aurkeztu dituzte • Emakumeentzako hainbat zerbitzu ere eskainiko dituzte

-ERREDAKZIOA

Eskualdeko emakumeen etxeek eta udaletako berdintasun arloek prestatu eta aurkeztu dituzte irailetik abendura arteko ikastaroak, saioak eta ekintzak. Horietan izena emateko epeak ere zabalik daude.

Ikastaroez gainera, emakumeei zuzendutako hainbat aholkularitza zerbitzu ere eskainiko dituzte zenbait udalerritan.

AZKOITIA

Azkoitiko Udaleko Berdintasun Sailak emakumeak ahalduntzeko ikastaroak antolatu ditu, eta horietan parte hartzeko izen ematea irailaren 26ra arte egongo da zabalik. Abendura bitartean, askotariko sei tailer eskainiko dituzte; gehienak aurreko urteetan eskaini izan dituztenak dira, baina bat berria izango da aurreko: zoru pelbiko indartzeko tailerra. Gainontzeko tailerrak, berriak, honakoak izango dira: erditu ondorengo yoga ikastaroa, batukada feministak, *Berdintasuna trikotatzen*, xilografia eta *Hitz ahalduntzen*.

«Ikastaroak emakumeen topaguneak dira, ahalduntzeko guneak, eta horien helburu nagusia elkarriketari eta hazkunde pertsonalarik denbora eskaintzea da, eremu jakin batean trebatzetik edo ezagutza eskuratzetik haratago», adierazi du Azkoitiko Udalak.

Parte hartu nahi duten emakumeek datorren asteartea baino lehen izena eman dezakete berdintasuna@azkoitia.eus edo azkoitia@azkoitia.eus helbidera idatzita, edota 943-54 20 14 eta 943-08 00 80 telefonoetara deituta. Udaleko Herritarren Arreta Bulegoan ere eman daiteke izena aurrez aurre.

AZPEITIA

Azpeitiko Udalak eta Emakumeen Txokoak ere zehaztu dute ikasturte berrian zer ikastaro eta ekintza eskainiko dizkieten herriko emakumei, eta horien helburua zein den ere gogorazi



Iazko ikasturtean noka ikastaroa, Orion. HITZA

dute: «Emakumei beren buruen eta bizitzaren jabe izateko tresnak eskaintzea, maila pertsonalean eta kolektiboan indartzea, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea eta errealitateari ikuspegi feministak batetik begiratzeko».

Eskaintza zabalik osatu dute, eta izena emateko epea hilaren 29ra artekoa izango da Jabetze Eskoletan eta ikastaroetan eta noka ikastaroan; gainerakoetan, izena emateko aukerak zabalik jarraituko du taldea osatu arte.

Abendura bitartean, honako ikastaroak antolatu dituzte: skate, eskalada, autoestimua eta ahalduntzea, emakumearen zirkloak eta osasun hormonalak, *Moitu bazterrak!* korrika ikastaroa, batukada feministak eta *Joskintza eraldatzailea*.

Emakumeentzako skate ikastaroaz gainera, bestelako ekintza batzuk ere prestatu dituzte hilaren 30erako Izarraizko Atea skate parkean. 10:30etik 12:30era skateko hastapen ikastaroa eskainiko dute, eta saio praktikoa izango da. Ondoren, parte hartze tailerra –*Skate, proposamen feministak*– egingo dute, 13:00etatik 14:00etara, Emakumeen Txokoan. Bukatzeko, skate emakume profesionalen erakustaldia izango da, 17:00etatik 18:30era, skate parkean. Erakustaldian zehar, argazki lehiaketa ere egingo dute. Egitasmo horietan parte hartzeko, hilaren 27rako izena eman beharko da.

«Parte hartzerako, sentsibilizaziozako eta integratzailezako saioak ere antolatu dituzte Azpeitiko Emakumeen Txokoan; horiek herritar ororentzat dira. Ahalduntzeaz, erresistentzia eta pribilegioez, atzerriko ikasketen homologazioaz nahiz ahalduntzen feministak antolatu dituzte hitzaldiak eta saioak.

Ekintzen inguruko informazioa jasotzeko Emakume Txokora (Goiko kale 12, behe) jo daiteke astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. 943-15 70 55 eta 688 15 10 00 telefono zenbakietara deitu edo emakume-txokoa@azpeitia.eus helbidera ere idatz daiteke.

ERREZIL

Saiaz gizarte zerbitzuetako komunitateak eta Errezilgo Udalak pilates ikastaroa antolatu dute urriaren 2tik ekainaren 26ra; astelehenetan izango dira saioak, 15:15etik 16:15era, Borondegian. Nagore Errazkin izango da irakaslea, eta urritik abendura bitartean, hileko 15 euro kostatuko da ikastaroan parte hartzea.

Pilateseko ikastarorako izena emateko epea bihar, asteazkena, bukatuko da. Izena emateko Saiaz gizarte zerbitzuetako komunitatera zuzendu beharko da, saiaz@saiaz.eus helbidera idatzita edota 646 47 84 14 telefono zenbakira Whatsapp mezua bidalita.

GETARIA

Getariako Udalak hainbat saio antolatu ditu datozen aste eta hilabeteetarako herriko emakumeen artean berdintasunaren gaia lantzeko. Besteak beste, ahalduntze ikastaroa egongo da hamabostero, urri amaieran hasita. Dena dela, oraindik zehazteko dute ordutegia.

Udalak adin desberdinak hartu ditu kontuan; izan ere, gaztetxoentzako da tailerretako bat, eta menopausia jada badutentzako ekintzetako beste bat. Hain zuzen, gaztetxoentzako hori da neskei eta mutilen zuzendutako bakarra. Gainontzekoak emakumeentzat soilik dira.

Informazio gehiago nahi duenak nahiz horietan izena emateko asmoa duenak udaletxera jo dezake.

ORIO

Inauguratu berri duten Saregile emakumeen etxean udazkenean hainbat ekintza eta ikastaro antolatu dituzte. Ekintzen artean daude *Orioko genealogia feministak* dokumentalaren emanaldia, ahalduntze eskolen onuren ikerketaren aurkezpena eta *Soilik bai da bai* legearen inguruko formakuntza.

Hiru ikastaro ere egingo dituzte Saregilen: *Gorputz kontzientetik mugimendura* da bat, zoru pelbiko lantzearena bestea eta ahalduntze digitalari lotutakoa hirugarrena. DBH 4. mailako neska gazteei zuzendutako ikastaroa ere eskainiko dute urritik aurrera. Irakurle taldeak, berriz, hilaren 27an izango du aurreneko saioa.

ZARAUZ

Zarauzko Emakumeen Etxeak ere abendura bitarteko ikastaroak antolatu ditu. Antolatzaileen esanetan, «kezkak eta esperientziarik partekatzea, osasun afektiboa eta emozionala zaintzea edo sareak sortzea» dituzte helburu ikastaroei, besteak beste.

Izena emateko azken eguna datorren ostirala, hilaren 22a, izango da, eta www.emakumeenetxea.zarautz.eus webgunean, Emakumeen Etxean bertan, 943-00 51 36 telefono zenbakira deituta edo emakumeenetxea@zarautz.eus helbidera idatzita eman ahalko da izena.

Jabetze Eskolaren barruan zazpi ikastaro antolatu dituzte: biodantza, *Jainkosa esnatzea*, Txi Kung-a, irakurketa eskola, *Munduko emakume idazleak*, zoru pelbikoak eta autoezagutzaz, eta noka ikastekoa.

Ikastaroez gainera, bestelako ekintzak ere antolatuko dituzte; esaterako, hilaren 22ko zineforum saioa.

Hainbat zerbitzu ere eskainiko dituzte Zarauzko Emakumeen Etxean: harrera gunea, aholkularitza psikologikoa, aholkularitza juridikoa eta atzerriko tituluaren homologazioaren ingurukoa.

ZESTOAK

Zestoako Udalak, Berdintasunerako Udak Plangintzaren barruan, ongizate emozionala lantzeko ikastaroa antolatu du hil honetatik aurrera. «Zestoako zaintza ekosistema ardatz hartuta eta emakume zaintzaileen ahalduntzea sustatzeko» helburuarekin antolatu dute. Tailerrak Saioa Garmendia ongizate emozionalean eta coach pertsonalean aditua denak gidatuko ditu. Hark dioenez, «bizitza osasuntsua eta bete lortzeko oinarria da ongizate emozionala izatea». Hilaren 14an egin zuten aurreneko saioa, eta apirilaren 25a arte izango da tailerra. Bi astetik behin egingo dute saioa, ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara, Alondorran.

Tailerraren berri izan nahi dutenek Zestoako Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailaren galdetu behar dute, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, edo 943-14 71 32 telefonora deituta.

ZUMAI

Abendura bitartean, Zumaiako Emakumeen Etxean ere hainbat jardura prestatu dituzte: autoestimua, kosmetika naturala nahiz txalaparta ikastaroak. Ikastaro horietan izena online eman beharko da, eta bihar arte izango da horretarako epea zabalik.

Ikastaroetako plazak betez gero, zozketa bidez osatuko dituzte taldeak, eta elkarteak bazkideek izango dute lehentasuna.

Zumaiako Telmo Deun traineruak ezin izan du lortu Euskotren ligarako txartela

Hibaiak bere tokiari eutsi dio, asteburuko bi estropadak irabazi ondoren • Zumaia bigarren izan da 'play-off' kanporaketan • Oriok bosgarren postuan amaitu du liga, eta Getariak zazpigarrenean

-MIREIA GALARZA BASTIDA
-ANDREA ZIPITRIA

Zumaiako Telmo Deunek hitzordu garrantzitsuak izan ditu asteburuan Bizkaian, Bermeon eta Portugaleten. Zumaia emakumeek traineruaren etorkizuna erabakitzeak azken estropadak jokatu dituzte, eta gogoz saiatu diren arren, ez dute lortu mailazigotzea. Beraz, datorren denboraldian ere ETE ligan jarrituko dute lehian.

Txartel bakarra zegoen Euskotren ligarako, eta hiru hautagai: Hibaika eta Kaiku, Telmo Deunekin batera. Hibaiak ez zuen hutsik egin, eta bere tokiari eutsi dio; seigarren bukatu du aurtun Euskotren ligan. Zumaia taldea bigarren sailkatu da, eta Kaiku, berriz, hirugarren.

Larunbateko Bermeoko estropadak irekita utzi zuen *play-off*-a. Hiru segundoko tartea besterik ez zen izan hiru taldeen artean, baina Hibaiak abantaila hartu zuen eta Kaiku bigarren jarri zen. Igandean, Portugaleten,

erabaki zen guztia. Bezperako hirugarren postua hobetu zuen Telmo Deunek. Tamalez, Hibai baina lau segundo geroago helmugaratu zen, bigarren postuan.

Edonola ere, ETE ligan aurrakari zuzena izan duen Kaikuri bi segundoko pasatxo kendu zizkion. Horrenbestez, bi estropadetak denborakontuan hartuta, bigarren geratu da Zumaia trainerua, 21:44ko denborarekin. Hibaiak 21:36.92ko denbora lortu du, eta Kaiku 21:45.44.

Zumaiako arraunlari Aintzane Urbietak estropada amaitu berrikan azaldu zuenez, «pozik» geratu ziren Kaikuren aurretik egin zutelako. «Irabaztera etorri gara, baina gure lana oso ondo egin dugu, eta asko gozatzea lortu dugu», gaineratu zuen.

Getaria eta Orio, erdialdean
Bukatu da Eusko Label liga ere. Denboraldiko azken bi estropadak jokatu dituzte asteburuan, Bermeon eta Portugaleten, eta bi

jardunaldietan Oriok eta Getariak bigarren txandan egin dute arraunean. Larunbatean, Orioko txanda irabazi zuten eta laugarren izan ziren sailkapenean; Getariako bigarren izan ziren eta seigarrenak sailkapenean. Igandean, aldiz, alderantzizkoa gertatu zen: zazpigarren geratu zen Orio eta zortzigarren Getaria, beren txandan hirugarren eta laugarren egin ondoren.

Gainerakoan, ezustekorik ez da izan, eta Urdaibai izan da 2023ko Eusko Label ligako txapelduna. Bermeoko taldeak hirugarren amaitu zuen Portugaleten, baina larunbaten etxean jokatu eta irabazitako estropadan utzi zuen erabakita liga.

Denboraldian egindako lan onaren ondorioz, eskualdeko bi taldeek erdialdean bukatu dute Eusko Label liga. Hain justu, bosgarren geratu da Orio, eta zazpigarren Getaria. Orain, atsedeen hartzeko, balorazioak egiteko eta datorren urtera begira jartzeko tartea irekiko da.



Joanes Goitisoleta garailea helmugaratzen. MIREIA GALARZA BASTIDA

Goitisoleta eta Elia nagusitu dira Zumaiako Triatloiko esprint proban

Proba herrikoian, Olatz Manuel eta Harkaitz Irazustabizan izan dira azkarrenak • Guztira, 500 kirolari inguruk parte hartu dute aurtengo edizioan

-MIREIA GALARZA BASTIDA
Zumaia

Nahi baino bero handiagoarekin jokatu zuten larunbat arratsaldean Zumaia Triatloia. Esprint proba eta proba herrikoia egin zituzten, eta, guztira, 500 kirolari inguru elkartu ziren.

15:50ean hasi zen proba herrikoia. Triatletek 350 metro egin behar izan zituzten igerian, hamar kilometro bizikletaz eta azken bi kilometro eta erdiak korrika. Gizonetan, Harkaitz Irazustabizan izan zen irabazlea, 33:35eko denborarekin; bigarren Markel Zaldua izan zen (35:01), eta hirugarren Unai Altuna (35:09). Emakumeetan, berriz, Olatz Manuelek lortu zuen garaiena, hiru probak 40:36an egin eta gero. Bigarren Saioa Urdangarin izan zen (41:49), eta hirugarren Nora Uria azkoitiarra helmugaratu zuen (42:38).

Esprint modalitateko triatleten txanda izan zen ondoren. Horien kasuan, 750 metroko igeriketa saioa egin behar izan zuten, hogeik kilometro bizikletaz eta bost kilometro korrika. Portugaleteko (Bizkaia) Alusigma Peñota Dental klubeko Joanes Goitisoleta izan zen azkarrena proba bukatzen, 55:54ko denborarekin; bigarren Aimar Murua izan zen, 56:15eko denbora egin, eta hirugarren Borja Martin, 56:31ekin. Denak talde berekoak izan ziren.

Emakumezkoetan, berriz, lehen hiru sailkatuak talde desberdinetakoak izan ziren. Lan oso txukuna eginda, Maialen Elia izan zen lehenengoa helmugaratzen, proba 1:07:26eko denboran amaituta; bigarrena Eneritz Urrutia (1:08:12) izan zen, eta hirugarrena, berriz, Ane Gurtubay, 1:09:05eko denbora eginda.



Analisia Itziar Olasagasti

Arraun aditua

Badator

Konturatzerako, uda amaitzen ari zaigu eta arraun denboraldi nagusia amaitu zaigu. Itsas mareak gora eta behera egiten duen bezala, bat amaitzearekin batera, bestea hasten da. Traineru denboraldia amaitu

da, baina gaztetxoak hasi dira edo hastear daude Urola Kostako elkarrekin.

Badator udazkena, gazteenak arraunean hasteko unea, ea arrauna gustuko duten edo ez erabakitzeko unea. Datorren denboraldirako helburuak jarri eta horien bila joateko bidaia haren hasiera. Estrupak baztertuz, bi daiez, bazkariez eta festez goxatzeko unea. Buruari arnasaldi bat emateko ezinbesteko unea. Egindakoaz eta egin gabekoaz hausnarketa egiteko garaia. Hala ere, izango da telefonoan denbora-pasa beharko duenik ere. Badirudi badatorzela aldatetakoak.

Hirugarren denboraldia izan da niretzat tosetetatik at. Estropadak moila bazterretik jarraitzeko asmotan nintzen, baina uda hastearrekin batera, Euskadi Irratiako gonbita jaso nuen, ea

bertain kolaboratzaile izan nahi nuen; ezin ezetzik esan. Haie baiezkoa ematearekin batera, UROLA KOSTAKO HITZAREN gonbita; horie ere baietza. Arraunaren beste alde bat ezagutu ahal izan dut honetan: lehorretik nola bizitzen duten komunikabideek. Hobetzeko asko gertatzen zaidan arren, asko ikasi dudana sentipenarekin nago.

Amaitzeko, goraiatu asteburuan Zumaia emakumeek egindako estropada. Nahi eta ez lortu *play-off* honetako lehen postua, egindako lanaz gustura gertatzea bezalakorik ez dago. Ea udazken honek berri onak dakartzan. Eta lastima, Getariako eta Orioko traineruek ligako azken estropada horrelako sentipen gaziarekin amaitu beharra. Ez baitzuten, ez bata, ez besteak, azken estropadan horrelako posturik merezi.

Gijarro eta Urteaga zumaiarrek irabazi dute Izeta lasterketa solidarioa

Eskualdekoak nagusi izan dira: Aranburu zarauztarra eta Gonzalez izan dira bigarrenak, eta Arbelaiz eta Paredes zumaiarrak hirugarrenak • 60 bikote misto lehiatu dira

-ERREDAKZIOA Aia

Igandean egin zuten lehendabizikoz Izeta bikote mistoen mendi lasterketa solidarioa, Izeta sagardotegiaren 40. urteurrenaren bueltan. Guztira, 60 bikote pasatxok parte hartu zuten proban, eta parte hartzaileek sei kilometro eta erdiko lasterketa osatu behar izan zuten, sagardotegitik bertatik abiatuta. Aniztasun funtzionala dutenei laguntzeko Marea Urdina elkartearentzat izango da izen ematearekin lortutako dirua.

Podiuma eskualdeko jendeak osatu zuen. Izan ere, Jokin Gijarro eta Nerea Urteaga zumaiarrak izan ziren lehenengoak helmugara iristen. Bigarrenak, berriz, Jorge Aranburu zarauztarra eta Marina Gonzalez izan ziren, eta hirugarren postua Vanesa Arbelaiz eta Unai Paredes zumaiarrek lortu zuten.



Izeta mendi lasterketaren podiuma. URTZI OTEIZA

Lasterketaz gain, izan ziren bestelako momentu aipagarriak ere. Karlos Argiñano omendu zuten lasterketa hasi aurretik, eta Jakes Iruretagoienak bolari

40 jasoaldi emateaz gain, Andoni Iruretagoienak enbor bat moztu zuen. Helduen lasterketa amaitu ondoren, berriz, umeen eta gaztetxoen proba egin zuten.



Sari banaketarekin bukatu zuten Zarautz 4Teens. GORKA EZKURDIA

Oinatz Ortega eta Lily Ubedo izan dira garaile Zarautz 4Teens lehian

-MIREIA GALARZA BASTIDA Zarautz

Hiru egunez jarraian, ostiraletik igandera, surfaz gozatu ahal izan dute dozenaka zalek Zarautzen. Izan ere, bi aldiz atzeratu ostean, azkenean egin ahal izan dute Aritz Aranburuk antolatutako Zarautz 4Teens surf txapelketaren zazpigarren edizioa.

Ostiralean, Kind Surf Challenge txapelketarekin giro onean hasi zuten kirol hitzordua. Guztira, zortzi enpresatako langileek parte hartu zuten, eta haiei laguntzen jardun zuten egokitutako surfeari aritzen diren hainbat kirolaririk. Ondoren, hainbat gaztetxok Zarauzko hondartzara garbitzeko aukera ere izan zuten, Mater ontziko kideekin batera.

Larunbat goizean hasi eta igande arratsaldera bitartean, berriz, 14 urtez azpikoentzako Zarautz 4Teens txapelketa egin zuten. Oinatz Ortega sopoloztarak (Bizkaia) eta Lily Ubedo hendaiaarrak (Lapurdi) lortu zuten 14 urtez azpiko gazteen txapelketa irabaztea. Bigarren sailkatu ziren Joshua Karbus irlandarra eta Carla Morera espainiarra, hirugarren Alai Rodriguez hendaiaarra eta Trinidad eta Tobagoko Cheyenne Irigoien, eta laugarren sailkatu ziren Ugaitz Zenarrutzaibeitia debarra (Gipuzkoa) eta Leila Martinez hendaiaarra.

Irabazleek surf kanpamentu batean egonaldia irabazi dute, Aritz Aranbururekin.

Irudia Azkoitia



181 txirrinduzale elkartu dira V. Mangaixuen

Hiru urteko etenaldiaren ostean, joan den zapatuan itzuli zen Azkoitira Mangaixue mendi bizikleta martxa. Bosgarren edizioa bete du aurtengoarekin Anaitasuna mendi bazkunakoek antolatutako kirol probak, eta azkenean, 181 txirrinduzale elkartu ziren Plazaberriko irteeran. Handik abiatuta, 35 kilometroko ibilbide luzea egin zuten batzuek, eta 25 kilometrokoa beste batzuek, Azkoiti inguruko mendi bideetan. Bukaeran, hainbat produkturen zozketetan parte hartu ahal izan zuten guztiak. NEREA URANGA

Ikusmina piztu du Zirika euskara elkartearen aurkezpenak

Ostegunean egin zuten Gaztelekuan Zirika euskara elkartearen aurkezpen saioa • Elkartearen nondik norakoak azaltzeaz gain, euskararen erabileraren hainbat datu aipatu zituzten bertan

—MIREIA GALARZA BASTIDA

Herritar asko bertaratu ziren joan den ostegunean Gaztelekuko azken solairuan Zirika euskara elkarteak egin zuen agerraldi-
ra, bai bertaratu ere, goraino bete baitzuten gela. Bertan izan ziren, besteak beste, herriko hainbat kultur eta gizarte eragiletako kideak, baita udal ordezkari batzuk ere, hala nola Iruñe Urbietako Euskara zinegotzia eta Itziar Murua EH Bildu udal taldeko bozeramailea. Aurkezpena

egiteaz, aldiz, Imanol Epelde, Jesus Mari Olaizola *Txiliku*, Goizane Arana eta Marian Galarraga arduratu ziren.

Epelde izan zen hitza hartzen lehenengoa. Haren esanetan, bi arrazoi izan dira elkartzera bultzatu dituztenak: kezka eta ardurara. Lehen arrazoiari dagokionez, «hizkuntzaren radarra piztuta» izaten dute une oro, euskararen erabilerarekin kezkatuta. Eta zera gaineratu zuen: «Euskarak badu lotura gizartea eraldatzea-



Aurkezpena gerturatu ziren herritarrak. MIREIA GALARZA BASTIDA

rekin, eta prozesu horretan protagonista izatea dagokigu». Bigarrenik, arduraz hitz egin zuen Epeldek. «Axolagabekeria da inguratzen gaituen gizartean gailentzen ari den joera, eta arduraz, hizkuntza erdigunean jarri beharko genuke, horrek lagunduko baitigu gizartea eraldatzen», azaldu zuen.

Euskararekiko duten maitasunak bultzatu ditu herrian euskara taldea sortzera

Jarraian, Txilikuren txanda izan zen, eta hura arduratu zen azken urteetan Zarautzen euskararen bueltan sortu diren egitasmoak azaltzeaz. Haren hitzetan, euskarari «merezitako duintasuna emateko» elkartu ziren hainbat pertsona orain dela 50 bat urte, benetan pentsatzen zutelako euskaraz bizi zitekeela. Hori horrela izanda, Euskara Zarautzen taldea sortu zutela azaldu zuen idazleak, jendeari euskarazko zerbitzuak eskaini ahal izateko: euskaraz idatzi, menuak jarri, oharrak sortu....

Zirikatzeko nahia

Aranak euskararen erabilerari buruzko dezentze datu eman zituen, eta hark azaldutakoaren arabera, kaleko erabilera datuak berdintsu mantendu dira azken



Marian Galarraga, Zirikari buruzko azalpenak ematen. M.G.B.

hamar urteotan herrian. Azpimarratu zuenez, Zarautzen gazteenek gehiago hitz eginen dute euskaraz helduek baino. «Dena den, datu asko daude hobetzeko, eta Zirikak horietan zirikatuta nahi du», gehitu zuen.

Galarraga izan zen azkena hitz egiten, eta hark eman zituen Zirikari buruzko azalpenak. Taldekideak elkartzen dituen elementua «euskararekiko maitasuna» dela adierazi zuen hark, eta helburua «ondo pasatzea eta euskaraz gozatzeko espazio eroso sortzea» direla azaldu zuen.

«Agerian jarri nahi ditugu herrian euskarari dagokionez dau den hutsuneak, eta horiek hobetzen saiatzeko lan egingo dugu», azpimarratu zuen.

Euskara elkarteak kideak adierazten eman zuenez, Zirika talde «anitz eta irekia» da, eta horregatik, herritarrak bertan parte hartzera animatu nahi dituzte. «Denek egiteko moduko lantxoak daude elkartearen, ez dago konpromiso handirik hartu beharrik». Amaieran, saioa biribiltzeko, mokadutxo egin zuten bertaratu ziren denek elkarrekin.

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP ELK

abiarazleak: estralera, egunkaria

Urola Kostako HITZA

Hirero: aldizkariak:

Maxikatzaren Uztaria Batek Karkara

Une oro:

maxikatzaren uztaria.eus
urolakostahitza.eus
batek.eus
karkara.eus
erlotelebia.eus
zarautzhitza.eus

Egunero:

Erlo telebista

Astele:

bideak gure webguneetan

Interesa baldin baduzu bidali curriculum

✉ administrazioa@ukt.eus
posta elektronikora
📞 irailaren 22a baino lehen

Urola Kostako euskarazko komunikabide liderra

Formakuntza eta esperientzia:

- Publizitatea edo Marketinean diplomatur edo lizentziatua, edota Ekonomia lizentziatua marketin adarrean edota Merkataritza eta marketin zikloko ikasketak.
- Urtebeteko esperientzia gomendagarria.
- Euskara C1 maila.

Gaitasun espezifikoak:

- Komunikazio gaitasuna.
- Bezeroarekiko orientazioa.
- Talde kohesioa.
- Merkatuaren ezagutza.
- Ofimatika gaitasunak.

ESKAINITZA

- Lanaldi osorako kontratua eta sektorearekiko soldata lehiakorra.
- Marketin talde bateko parte izateko aukera.
- Talde lanean eta helburu zehatzekin lan egiteko aukera.

EZ GALDU AUKERA!

Gaur hasiko ditu saioak Ttipi-Ttapa korrika taldeak

AZKOITIA // Gaur hasiko ditu entrenamenduak Ttipi-Ttapa emakumeen korrika taldeak. Astearteetan eta ostegunetan egingo dituzte entrenamenduak, Elkartegunean hasita, 18:00etatik 19:00etara, Jose Antonio Zulaikak lagunduta. Herriko emakumeak entrenamenduetan parte hartzera gonbidatu dituzte, are gehiago, pandemia ondoren kopurua jaitxi egin delako. Hori dela eta, iraileko saioak «probakoak» izango dira, eta urrian «mar-txan» jarriko dira.

Ostiralera arte eman daiteke izena Abarketatxon

AZKOITIA // Azkoitiko Udaltzaia Gazteria Sailak eskaintzen dituen Gazte Zerbitzu Bulegoa, Abarketatxo ludoteka eta Artxamendi topalekua irailaren 25ean irekiko dituzte herritarrentzat. Hain zuzen, Abarketatxo ludotekan izena eman nahi dutenek ostiralera bitartean izango dute aukera. Bestalde, ludotekako eta topalekuko erabiltzaileen gurasoei zuzendutako bilera bihar izango da.

Amabirjinetako balorazio bilera egingo dute bihar

ZESTOA // Hilaren 10ean amaitu ziren Zestoan amabirjinak, eta herriko festen balorazioa egiteko asmoz, bilera deialdia egin du Zestoako Udalak. Biher elkartuko dira udaleko ordezkariak eta herritarrak, 18:30ean, Alonderoko udal aretoan.

Oroimen Historikoaren Astea antolatu dute udalak eta Aranzadik

Gaurko egunez tropa frankistak sartu ziren Azpeitian, eta egun horren harira, hitzaldiak eta bisita gidatua antolatu dituzte udalak eta Aranzadi zientzia elkarteak.

-MAIALEN ETXANIZ Azpeitia Gaurko egunez duela 87 urte, tropa frankistak sartu ziren Azpeitian, eta egun horren harira, Oroimen Historikoaren Astea antolatu dute Azpeitiko Udalak eta Aranzadi zientzia elkarteak aste honetarako. Bi hitzaldi eta Loiolara bisita gidatua eskainiko dituzte astean zehar, eta duela 87 urte jazotakoa oroitzeko, martxan jarriko dituzte udaletxeko kanpaiak gaur. «Memoria historiaren ezagutzarako eta zabalpenerako» antolatu dituzte ekintzak.

Atzo hasi zituzten Oroimen Historikoaren Asteko ekintzak Azpeitian, Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteko kide Patxi Ibarzabalek eskainitako hitzaldiarekin. *Memoria duen herria eraikitzen. Ahaztuen Oroimena 1936 Markinaldeko frontea elkartaren esperientzia* izenburupean eskaini zuen saioak hark, eta Ahaztuen Oroimena 1936 elkar-teak azken urteotan egindako ibilbideaz jardun zuen. Testigantzen pasarteak, Markinaldeko frontean izandako borrokal-diak eta elkar-teak landutako gaiekin batera egindako desho-biratzak ere aurkeztu zituen hark Basazabalen.

Gaur, irailaren 19a izanik, 1936ko egun berean jazotakoa oroitzeko udaletxeko kanpaiak joko dituzte, 15:00etan, bost minutuz. Izan ere, udalak gogoratu du ordu horretan «ehunka az-



Loiolako museoa ireki zuteneko artxibo irudia. AZPEITIKO UDALA

peitiarrek» ihes egin zutela Urolako trenetan, «tropa frankisten-beldur».

Bigarren hitzaldia bihar izan-go da, Ione Zuloaga historialari azkoitiarraren eskutik. Aranzadiko kideak *Emakumeen aurka-ko errepresio frankista gerra garaian eta gerraostean (1936-1945)* solasaldia eskainiko du 19:00etan hasita, Basazabalen. Gerra garaian eta gerraostean emakumeek Gipuzkoan pairatu zuten errepresioaz mintzatuko da Zuloaga. Horretarako, Azpeitiko zenbait kasu ere azalduko ditu.

Ostiralean itxiko dute antola-tutako egitaraua, eta Eusko Gu-darosteak Loiolan duen oro-

men gunearien inguruko bisita gidatua eskainiko dute, Javi Buceces Aranzadiko historialariak gidatuta. Bertan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute memoria@aranzadi.eus helbidera idatzita. Bisita gidatua 19:00etan hasiko da, Loiolako memoriaren etxola pa-retik. Bucecek Eusko Gudarostearen inguruko proiektu museo-grafikoaren inguruko azalpenak emango ditu, eta Loiolak Eusko Gudarostearen sorreran izan zuen garrantzia izango du hizketagai.

Oroimenaren garrantzia

Nagore Alkorta Azpeitiko alkate-ak «memoriaren zabalpenerako

dagoen beharra» azpimarratu du: «2014tik urte asko daramatzagu Aranzadi zientzia elkar-tearekin elkarlanean. Memoria historikoaren baitan ikertzea, eta egia jakitea garrantzitsuak dira, baina gertatutakoren dibul-gazioa ere ezinbestekoa da». Her-ritarrak antolatutako ekintze-tan parte hartzera animatu ditu Alkortak.

Bucecek, bere aldetik, Azpeit-ian egiten ari diren lanaren «gar-rantzia» nabarmendu du: «Az-peitian 1936tik gaur arteko giza eskubide guztien ikerketak egin dituzte, eta zabalpenerako libu-ruak argitaratzeaz gain, horrela-ko egitasmoek ere herritarren ar-tean interesa pizten dute».

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAN jarrita,
Goleriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu
urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain
merkeago

TXIKIA (82mm x 64mm): 104 € / *Harpidedunentzat: 52 €
HANDIA (124mm x 64mm): 156 € / *Harpidedunentzat: 78 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 52 € / *Harpidedunentzat: 27 €

*Harpidedunak HITZAKo balorazioa egin behar dute.



Karlos
Etxeberria
Insausti

- Goian Bego -

Beti gogoratuko zaitugu Molpoidoko
sukaldean txistuka ta kantari.
Txokolatezko muxuak etxekoan partetik,
atona Karlos!!!

Etxekoak: Amona Marian, Lierni eta Arkaitz,
Iñigo, Araitz, Ihintza eta Maier.

IBARRA, 2023ko irailaren 19an.



Karlos
Etxeberria
Insausti

Beldarrak tximeleta bezala,
doluminak bizi-mina ekar dezala.

Beasaingo Ikastolako lankideak eta familiak.



IBARRA, 2023ko irailaren 19an.

Agenda

Gaur, asteartea

Bilera

Azpeitia. Gazte Kirol Programaren inguruko bilera, 19:00etan, kiroldegian.

Saioa

Azkoitia. Irakurle taldearen saioa, Jokin Zaitegi bekari esker Oskar Arana aramaioarrak euskaratutako J.M. Coetzee hegotsa-frikarraren *Lotsaizuna* (Elkar) nobelaz. Dinamizatzailea: Iñigo Aranbarri.

Bihar, asteazkena

Bilera

Zestoa. Ama Birjina jaien balorazio bilera, 18:30ean, Alondero-ko udal aretoan.

Hitzaldia

Azpeitia. Oroimen Historikoaren Astearen barruan, *Emakumeen aurkako erreproso frankista gerra garaian eta gerraostean (1936-1945) hitzaldia*, Ione Zuloagaren (Aranzadiko historialaria) eskutik, 19:00etan, Basazabalen.

Irailak 22, ostirala

Bertsoak

Aizarnazabal. Samiel jaietako bertso saioa, 22:30ean, Atari Soro pilotalekuan. Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Nerea Ibarzabal, Maialen Arzallus eta Andoni Egaña. Gai jartzailea: Igotz Alkorta. Antolatzailea: Adiskide bertsozale elkarte. Sarrera: doan.

Bisita

Azpeitia. Oroimen Historikoaren Astearen barruan, Eusko Gudarosteak Loiolan duen oroimen gunera bisita gidatua, 19:00etan. Parte hartzeko, aurrez izena eman behar dela jakinarazi dute, memoria@aranza-di.eus helbide elektronikora idatzita.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Olagarro Eguneko artxiboko irudia. AITZIBER ARZALLUS

Beste urte batez, Olagarro Eguneko argazki rallya antolatu du Distira Zumaia argazkizaleen elkarteak larunbaterako. Goizean zehar, gastronomiaren festa argazkietan jasoko dute parte hartzaileak.

Olagarroaren festa argazkietan jasoko dute

—**MARIA MAYA MANTEROLA**
Zumaia

Irailaren 23an izango da aurtengo Olagarro Eguna, datorren larunbatean, eta horrekin batera, argazki rallya ere izango da. Ekin-tzaren XVII. edizioa izango da, hain zuzen, eta eguerdira bitartean ateratako argazkiak jasoko ditu Distira argazki elkarteak.

Kamera digital bat duen edonork parte hartu dezake egun horretako rallyan, eta Olagarro Egunean bertan udalerri barruan ateratako argazkiak aurkeztu ahal izango dituzte, izena emateko momentuan zehaztutako gaiak oinarri hartuta. Parte hartzaile bakoitzak bost argazkiz osaturiko bilduma aurkeztu beharko du, gai bakoitzeko argazki bat.

Izen ematea Alondegiko Ox-

ford aretoan izango da egunean bertan, 09:00etatik 10:00etara. Inskripzioa egiten duten helduei herriko txosnetan olagarroa dastatzeko txartel bana emango dioteko, eta 16 urte baino gutxiago dituzten gazteei, berriz, Zumaia Gertu merkataria eta ostalarri elkarteak saltokietan gastatzeko hamar euroko txartel bana.

Erabakia ospe handiko argazkilariz osatutako epaimahai batek hartuko duela adierazi dute antolatzaileek, eta honako sariak banatu dituzte: lehenengo bildumarentzat 200 euroko balioa duen Gertu erosketa bonua eta garaikurra izango dira, bigarren bildumarentzat 150 euroko balioa duen Gertu erosketa bonua, eta hirugarren bildumarentzat 120 euroko balioa duen Gertu erosketa bonua. Lehenen

sailkatzen den herritararentzat, berriz, ehun euroko balioa duen Gertu erosketa bonua izango da opari.

Bazkariko txartelak, salgai

Joan den astetik salgai dira Zumaia Turismo Bulegoan Olagarro Egunean egin ohi den herri bazkarirako txartelak. Helduak bederatzi euroren truke eskuratu ahal izango dute txartela; haurrek, berriz, sei euroan. Olagarro Egunean ohikoa den granate koloreak hartuko du herria, eta nahi duenak eskuragarri izango ditu kamisetak eta zapiak ere Turismo Bulegoan, bederatzi eta euro baten truke, hurrenez hurren.

Zopa, herriko ondare

Olagarro Egunean bertan ez ezik, datozen egunetan ere izan-

Aiako Argazki Lehiaketa ere abian da

Aiako XVII. Argazki Lehiaketa lanak aurkezteko epea urriaren 13ra arte zabalik izango dela iragarri du Aiako Udalak. Azken urteetan bezala, oraingoan ere gaia librea izango da, baina herriarekin lotura duten gaiak bakarrik onartuko ditu epaimahaia.

Parte hartzaile bakoitzak gehienez lau argazki aurkeztu ditzake lehiaketara, koloretan edo zuri-beltzean. Argazkiek 2022an edo 2023an ateratakoak izan behar dute, eta pendrive batean eta paperean (30x20 cm-ko neurrian) aurkeztu behar dira. Argazkiak gutunazal batean entregatu behar dira, eta irudi bakoitzak atzean bere izenburua eta noiz ateratakoa den zehaztuta izan behar ditu; gutunazalaren barruan egilearen informazioa ere zehaztu beharko da: izen-abizenak, nongoa den, harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa.

Lanak Aiako Kultur Etxean aurkeztu daitezke dagoeneko. Argazkiak Aiako Udalaren esku geratuko dira, eta hark hurrengo urteko egutegia egiteko baliatuko ditu.

go dira gai berarekin lotutako jarduerak herrian. Ostegunean hasi eta urriaren 15era artean, esaterako, Javier Carballo argazkilaria zumaiaarren bilduma ikusi ahal izango da Alondegiaren sarreran.

Erakusketak zabalitzen den egun berean, etzi, mahai ingurua izango da Oxford aretoan: Inazio Manterola biologiaren ikuspetik arituko da; Mari Carmen Eizaguirre, Jose Maria Sacristanek eta Martin Etxabek olagarroa hartzeko erak aurkeztuko dituzte; eta Ibon Urra ko zinatzeako modu desberdinez ariko da.

Dena den, larunbatean lehortuko da festa Zumaian, eta kulturari eta gastronomiari lotutako jarduerak andana izango da egun osoan zehar, jaki preziatua dastatzeko postuez gain.